

# Konstituzionalismoaren etorkia eta 1808. urteko Baionako Konstituzioa

(Origin of the constitutionalism and Constitution of Bayonne in 1808)

PEILLEN KARRIKABURU, Txomin

Eusko Ikaskuntza  
51, quai Jauréguiberry  
64100 Baiona

BIBLID [1137-1951 (2009), 18; 87-92]

Sarrera eguna: 2008.11.28  
Onarpen eguna: 2008.12.11

**B**aionan erregeek eman komediaz baliatuz Napoleonek anaiari Espainiako koroa eman; espainolekin laburki eztabaidatuta frantses konstituzio zentralista mota bat hartzera behartu: indar gutxiko bi ganbara, Estatu Kontseilua erregeek hautatua indartsuago, monarka absolutista baten esku botere handiena. Berritasunez: gizabanakoen eskubide zerbait eskaintzea, inkisizioa debekatzea, zaharkeriaz katolikotasuna erlijio bakar bezala aldarrikatzea. Aipatu ziren hiru *afrancesado*, baita euskaldun idazleek nola ikusi zuten Napoleone.

**Giltza-Hitzak:** Errege eta enperadore. Joseph Bonaparte. Baiona. Frantses konstituzioak. Ilustrazioa. Absolutismoa. Ganbara bitasuna eta foruak. Hegoamerika.

**N**apoleón entrega la corona de España a su hermano, valiéndose de la comedia ofrecida por los reyes en Bayona; después de discutir brevemente con los españoles, obliga a adoptar la constitución centralista francesa: dos cámaras con poco peso, un Consejo de Estado más fuerte nombrado por el rey y la mayor parte del poder en manos de un monarca absolutista. Recientemente: ofrecer algunos derechos humanos, prohibir la inquisición, promulgar el catolicismo como única religión reaccionariamente. La visión de Napoleón de los tres *afrancesados* mencionados y de los escritores vascos.

**Palabras Clave:** Rey y emperador. Joseph Bonaparte. Bayona. La Constitución Francesa. La Ilustración. El Absolutismo. Bicameralidad y fueros. Sudamérica.

**N**apoleón remet à son frère la couronne de l'Espagne en se servant de la comédie offerte par les rois de Bayonne ; après avoir brièvement discuté avec les espagnols, il impose la constitution centraliste française : deux chambres ayant peu d'influence, un Conseil d'État désigné par le roi plus important et un monarque absolutiste détient la plupart du pouvoir. Récemment : attribuer certains droits de l'homme, interdire l'inquisition, promulguer le catholicisme comme une religion réactionnaire unique. L'opinion de Napoléon sur ses trois *partisans* cités et sur les écrivains basques.

**Mots Clé :** Roi et empereur. Joseph Bonaparte. Bayonne. La Constitution française. L'illustration. L'absolutisme. Système bicaméral et les fueros. Amérique du Sud.



**Miguel Artola Gallegok** Espainiako Historiako Errege Akademiako kide, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan irakasle, *Bayona y el constitucionalismo napoleónico* delakoaz hitz egin zigun. Erakutsi zigun nola frantses iraultzaren ondoren diktaduratik bikamerismora igaro zen Frantzia. 1808 urteko maiatzean 1ean espainol bilduei eskaini zitzairen konstituzioa apur bat hobetzeko. Agintearen beso nagusiak Consejo de Estado izena zuen. Gorteetan diputatu guztiak (300.000 biztanleentzat bat) bilduko dira eta Senatua jende banakoaren eskubide babeslea edo batzorde batzuen biltzeko gai (juntas especiales) izango da. Erregeak berak ezezta zetzakeen, berak uste, ez konstituziozko ziren hauteskundeak. Konstituzio horrek ez balu politikan aurrerapenik ekarri, gizarte mailan bai ezen metatzen ziren: egoitzaren bortxa ezintasuna, lekuz aldatzeko askatasuna, torturaren debekatzeko, pribilejioen kentzea (nobleek ere zergak ordain ditzaten), halaber herri karguetara aurkezteko berdintasuna, frantsesen beti gogoko dena Espainiarako kode bakarra, inprimatzeko eta komertzioan aritzeko askatasunak, Erregearen ontasunak herri ogasunetarik bereiztea, barne erreformak, baita kontutan hartzea Euskal Herrietako foruak.

**Juan Cruz Alli Aranguren** Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Administratiboko irakasle, *El marco histórico e institucional de la constitución de Bayona*.

Aurretik aipatu zigun Bonaparteren estatu golpearen ondoren, hautesleen lekuan handiki zerrendak egiten zirela eta haiek funtzionarioak, diputatuak eta kontsulak hautatzen, hau zen Frantziako 1799ko konstituzioa; banakoaren eskubideak eta askatasunak guti aipatzen zituena. Hiru gizonetako hautesle nagusiak (Bonapartek) hautatuak ziren. Suffrage universel ospetsua baztertu zen, Giza Eskubideen Aldarrikapena ez aipatu, eta bikamerismoa sortu. Legegintza hiru zatitan zen, Senatu begiratzaila, bi Tribunatuak ehun kide zituztenak eta Biltzar orokorrak hirurehun. Erregeren denborako Estatu Kontseilua berriz piztu zen eskubideen mailan legeak egokitu, hobetu gogortu zetzakeena eta geroago enperadorearen esku izanena dena.

Beraz, Baionako konstituzioa, guti edo asko, aurreko 1799, 1802, 1804 frantses konstituzioen umea da, Aginte gogorraren lehen pausua da, enperadoreak Poloniari, Napolesi, Westfaliari emana, baina bere absolutismoagatik Napoleon desagertu ondoren erreinu askok gordeko dutena, Espainiak apur bat ere. Senatua lau estamentuz antolatua zen: nobleak, eliza gizonak, herria. Gizabanakoen eskubideak eta konstituzioaren aplikatzea zaindu behar zuten.

Espainiako Gorte Nagusiak hiru urtero biltzen ziren. Lege biltzarra zen, Ogasunaz

arduraten zena eta ministroak kontrolatzen. Estatu Kontseilu delakoak botere handiak zeuzkan:

1. Auzitegien eta administrazioen arteko harremanez.
2. Zigor eta zibil kodeen aldaketak.
3. Errege dekretuen ezagutaraztea.

Justiziaren berjabetasuna bermatzeko “justicia de abadengo, ordenes y señorío; juzgados de Chancillería y Audiencias” kentzen ziren baita Inkisizioa ezabatzen.

Frantses eredia jarraituz auzitegiak berritu zituen: “primera instancia”, “tribunal de apelación” eta “Alta Corte Real” antolatu ziren. Halaber, beti eredia jarraituz Llorentek 1810ean eskaini bezala prefekturak (38) eta subprefekturak (111) sortu ziren. Gero Ameriketako herriek beren interesak zaintzeko 22 diputatu igor zitzaizketen.

Jakina, Ilustrazioaren ondoko espainol liberalen gogatzeko burges ekonomia laguntzen ahal zituzten, auzitegi eta askatasunak foru batzuen eragozpenak eta zergak kenduz, eskaini zitzairen, nahiz konstituzio horrek euskal herrietako foruak, Borbonek baino hobeki errespetatu zituen. Liberalei izen asko eman zitzairen, *traidores, infidentes, juramentados* eta *afrancesados*. Batzuek gerrate baten ekiditeko errege frantsesa onartu zuten, baina askok erreforma nahi bazuten ere, frantsesak urrunegi joan zirela zioten.

**Jean-Baptiste Busaal**, docteur en droit, ATER à l'Université de Rouen. *La Constitution de Bayonne et la culture constitutionnelle de la monarchie catholique*.

Espainiako Iraultza garaian (1808-1812) azpimarratu du Baionako Konstituzioaren garrantzia politika eta beste konstituzioaren eztabaidan.

Napoleon Espainia bere europar sisteman hartu nahian eta herri horretako barne arazoetan sartzean, ia monarkia hori politika, ekonomia eta gizarte gatazka nahasi eta sakonetan itoa zen. Karlos IV.a Godoyen gainean bermaturik, aristokrazia molde gaizki baztertuxe zuen. Fernandok, Asturiasko printzeak, Bakearen Printzearen aurka piztu etsaigoaz baliatuz, Aranjuezen 1808ko martxoan “Jauregi Iraultza” egin zuen, baina Napoleonek, Murat jeneralaz lagundurik, dinastia eskubideez jabetzea erdietsi zuen eta berehalaxe José anaiari eman. Baionako konstituzioa urte berean uztailan aldarrikatu zen baina laster espainol gehienek aiherra sutu: kontserbadoreek *Pacta* sistema gorde nahi zuten, liberalek zioten testuak ez zuela herriaren subiranotasuna bermatzen. Konstituzio horrek Cadizeko Gorteak bildu arte eta 1812. urtean

espainolek egina aldarrikatu arte, Baionakoak, espainol iraultzaren eztabaida hazi zuen.

**Rogelio Pérez Bustamante**, Madrilgo Juan Carlos Unibertsitateko Zuzenbidearen historiako katedraduna. *Baionako konstituzioaz eta Espainiaren zuzenbidea modernizateaz.*

Gomutatu zigun izena zuela Estatuto Constitucional. Azpimarratu ere, nola Gorteen frantses kode zibila baztertu zuten. Gainera, kontutan hartu zuen Espainiaren eta monarkia horren berezitasun batzuk aberatsekin batean nobleekin akomeatuz, baita konstituzioaren lehen artikulua, 1812.an agertuko den perpaus berdin berdinarekin, dio: “La religión de la Nación española es y será perpetuamente la Católica, apostólica, romana, única verdadera. La Nación la protege por leyes sabias y justas y prohíbe el ejercicio de cualquiera otra”. Erreforma horrek porrot egin zuen, erregea José izan zelako eta Murat frantses armadak penintsula okupatu zuelako. Baionako estatutuan ziren giza banakoentzat aurrerapen batzuk hala nola botereen bereiztea, erlijio askatasuna, liberalek 1837. urtean bitartean onartu zituzten Mendizabalen desamortizazioak elizari bere indar bat kendu ziotelarik. Halere 1808 urtean frantsesek abiatu zentralismoak ez du irabazi, ez eta osoki Francoren garaian eta kode aniztasunak bizirik dirau penintsulan.

**Juan Carlos Domínguez Nafría** Madrilgo CEU San Pablo Unibertsitatea. *La América española en la estrategia de Napoleón y en el estatuto de Bayona.*

Napoleonen asmo handiengan Espainia bere koloniek ingalateratik Europa babesteko izan behar zuen. Itsasoan buruzagitza jadanik erregeren garaian Frantzia eta Erreinu Batuen arteko guduka bidea izan zen. Napoleonek Saint-Helena uhartera bere oroitzapenetan militar hezkuntzatik gorde zuen taktikaz aldatzea eta idatzi zuen “ez nintzen zertzeladak nire gogora plegatzera emana baina gehienetan haietaz gidatzea uzten nuen nire burua.”

Baionara frantsesak Espainian sarturik, printzeak eta errege eta erregina deitu zituenean, aurre Gorte horretara ordezkari bereziak etorri ziren Asturias, Bizkaia, Gipuzkoa, Kanariak, Mallorca eta Nafarroatik. Denbora berean deitu ziren La Habana, Nueva España, Perú, Santa Fé, Buenos Aires eta Guatemalako ordezkariak.

Bere lehen emazte Josefina bidez ulertu zuen kolonialismoak bere azkena izanen zuela eta horrek itsasoetan komertzioa bakean egitea sortuko zuela, baldin birjabetu herriak ez baziren ingeles koroaren eskupera erortzen. Estatu Batuak miresten zituelarik, arazo barik Luisiana eta Florida errepublika hari laga zizkion, halatan ere Iraultzak

kendu esklabotasuna indarrean berriz jarri zuen eta esklabo askatu berrien matxinadak odolean ito.

José ez zela gobernatzeko gai ikusirik dekretu batez Espainiaren zatiketa abiatu zuen Ebrorainoko Marca Hispánica bat, Ebroraino iritsiko zenaren atontzeko Kataluniako, Aragoiko, Nafarroako eta Bizkaiko gobernadore militarrek izendatu ziren (1810eko otsailaren zortziko dekretua). Azkenean, Napoleonek Ipar Amerikako independentziari eman laguntzekin, eta Espainol Amerikari irudiaraziagatik, Ameriketara ez zuten ez Napoleon jarraitu ez eta konstituzioa onartu, baina Madrilgo matxinadarekin elkartasuna erakutsi zuten.

**Maite Lafourcade**, Professeur émérite, Université de Pau et des Pays de l'Adour. *Des premières constitutions française à la Constitution de Bayonne.*

Mendeetan zehar Frantziaren konstituzio bakarra foru eta pribilegioz egina zen; eta erregea denen buru; denborarekin eta Estatu adigai garatzearekin, batik bat XVIII. mendean frantses Ilustrazioko J.J. Rousseauk zuzeneko demokrazia eta herriaren subiranotasuna hobetsi zituen, aldiz, Voltaire eta Montesquieuk nahiago zuten subiranotasuna estatuaren izan zedin eta demokrazia diputatuen esku.

Lehenbiziko konstituzioa, Frantzia, lege-gizonena izan zen 1791 urtean, nazioaren soberania sagaratu zuena. Lege biltzarreko burges gehiengo herriaren subiranotasuna izutua ez zuen “haragizko” nazioa onartu, nazioa jendeen gaineko izate abstraktua izanez. Bi mailatako hauteskundeak egiten ziren zergak ordaintzeko gai zirenei hautesle izatea aitortuz. Exekutiboa erregeari zegokion, erregeak zin egin ondoren, baina lege biltzarrak kontrolatua, bestalde zuzenbidea estatuko hirugarren boterea zen. 1792an errepublika aldarrikatzen da eta diktatura hortik ateratzen, ezen herriak Konstituzio berria onartu eta *Convention* biltzarreko lehen buruaren katedra azpian gorde eta ez zen erabili. 1795. urtean errepublikarren diktatura erori eta beste konstituzioa (indarrean sartu zen): oraingoan lege boterea bi zati egin zen, exekutiboa bost zuzendarien artean banatua, baina legegintza boterearen eta exekutiboaren artean piztu nahaspilengatik Bonapartek 1799. urtean boterea hartu zuen Iraultza frantsesak nahasi gauzen bereizteko eta gogorki zuzentzeko. Hiru kotsulek boterea hartu zuten, baina egun batean bat bakarrik geratu zen Enperadorea. Azkenean Espainian, eskarmentu horien ondotik sistema absolutista sartu zuen, erregeari botere handia utziz. *Pacta Conventa* antza bazuen ere lege boterea aholkulari eta kontsultagarri izan zen. Senatua mugatua zen Napoleonen aurre ikusi erreformak ez ziren egin José Espainian usurpatzaile bezala ikusia zelako.

**Rafael Dezcallar Mazarredo**, Espainiako Atzerri Arazoetarako eta Kooperaziorako kanpo-politikako zuzendari nagusia; UNESCOren enbaxadore. *El almirante Mazarredo, ilustrado y afrancesado*.

Bere amaren aldetiko Mazarredotarren politika karguak eta eraginak aipatu ondoren, familiaren oroitzapen batzuez eta historiak baliatuz erakutsi zigun zelan eta zenbateraino almirantea bilbotar frantses-zalea izan zen edo zergatik hala egin zen Ingalaterrako itsas buruzagitzaren aurka borrokatzeko, baina ez zen iritsi bere espainoltasuna galtzeraino.

Goyak Mazarredoz egin irudia 1936. urtean lapurtu zen kopia bat aurkitu zen, baita familian Nelsonek Mazaredori Trafalgarko guduan bidali gutunak. Jadanik, 1776. urtean itsasontzi kapitaina zen hogeita hamar urterekin, gero hogeita bost urtez Teniente General de la Armada. Ingelesek guduan ez zituen Trinidad eta Guyana baizik galdu.

Itsas gizon handia izateaz gain kanpo astronomilaria zen, eta hogeigarren menderaino erabiliko diren Marinaren Ordenantzak idatzi zituen. Nelsonek Hego eta Ertamerikarako bidean Espainiari motz ez ziezaioten frantsesekin ibili behar izan zuen. Kadiz ingelesengandik babesteko lehen aldiz lantxa kanoidunak erabili zituen.

Bonaparterekin ez zen beti ongi etortzen, Bonapartek Mediterraneo gogoan eta Mazarredok Atlantikoa. Godoy eta Karlos IV.ak baztertua izan zen, baina José Bonapartek Marinako ministro egin zuen.

Hitzegileak bukatu du esanaz Ilustratuen porrota, 1975. urteraino Espainia demokraziara igarotzeko eragozpen handiena izan dela.

**José Antonio Escudero**, Historia zein Jurisprudentzia eta legeria Errege Akademien kide. *La Administración Central en la Constitución de Bayona*.

Napoleonek Espainia administrazio gabeko herri basatia, fraidek eta apezek zuzendua ikusi bazuen, jadanik Austriakoek antolatutako polisindial sistema bizirik ziraun eta geroztik Felipe V.ak Secretarias de Estado y del despacho eratuak; beraz Baionako Estatututik landa bost estatuko sail izan ziren Gerra, Marina, Justicia eta Hacienda, bost ministerio gehi Gaztelako aholkularitza eta Estatuko Aholkularitza (Azken hau Napoleonen sisteman Kanpoko Arazoen Ministraritza bilakatu zen).

Horiez kanpo berrikeria handienak izan ziren Indiatarako, Polizia orokorreko, eta Kulturaren sailak Azken hau Justiziatik bereizita. Azkenean

bederatzi sail. Sistema hori frantses kanporatzearekin desagertu bazen, ministerioek handik aurrera eguneroko bizitzaz eta jendeen ongizatearen kezka gordeko dute.

Garai berrietako lehen Estatu Kontseilua edo Aholkularitza, Napoleonen konstituzioa izango da, ezen zibilean, kriminean eta administratzen arau orokorren ikuskatzailea zen baita justizia eta administratzen arteko harremanak hobetzeko. *Consejo de Castilla* ez zen desagertu baina Consejo Real bilakatu zen. Halere azkenean baten eskuetan bizpahiru ministraritza ipintzeko ahalak utzi zen, hala nola Justizia, Kultua, Polizia orokor eta Barne ministraritza bat eginik.

**Arnaud Martin, Bordeaux IV Montesquieu** unibertsitateko irakaslea. *Les droits individuels dans la Constitution de Bayonne*.

Zuzenbide publikoko irakasleak luzaro aipatu ditu agertzen edo erdi agertzen diren askatasun berriak. Prentsaren askatasuna, liberalak ere idatz zezaten, baina lege mugatua zen eta babes handirik gabe. Erligio askatasuna, espainolek eskaturik, kendu zen; bakarrik Inkisizioa ezeztatzen zen eta ekonomiaren onean monjeagoaren abusuak mugatzen, lurra banatuz eta fraideen kopurua erdira jaitsiz. Giza banakoaren eskubide ezagutuak Jabetasun eskubidea, ekonomiaren eskubideak bermatzea eta espainolak justiziaren gehiegikeriaz zaintzea ziren, batez ere norbaiten atxilotzea idazkirik gabe edo legea hausten ikusi gabe ezinezkoa, baina jadanik, gaur bezala, Estatuaren aurka sumatu egitekoak lege kanpo Poliziaren Ministroaren esku utziak ziren. Orokorri espainolei, legearen aurrean, berdintasun gehiago ekartzen zieten, baita burgesiari kode zibilean, zigor kodean eta komertzioan bermeak ematen. Konstituzio hori apur bat liberala izan arren sarritan ilunskia zen; halere konstituzio horrek Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako foruak, behin behingoa errespetatzen zituen.

**Gregorio Monreal Zia** Nafarroako Unibertsitate publikoan irakasle. *Las posiciones vascas en la junta de Bayona: defensa del régimen foral*.

Godoyen azken urteetan foruak oso egoera hauskorrean zeuden. Foru erakunde eta ahalduen aho batez foruaren balioa azpimarratu eta gorde nahi izan zituzten. Hauek izan ziren euskaldunen ordezkariak. Hauek izan ziren Enperadorearen konstituziotik kanpo geratu zirenak:

Euskal lurraldeek aspalditik beren Pacta tankerako konstituzioa daukate.

Napoleonen konstituzioak lau oinarriko euskal eskubideak uki ditzake:

1° Gorte berriek ez lituzkete herriko biltzar eta batzar orokorrak kontutan hartuko.

2° Zibil kode eta legedi bakarrak jadanik dauden giza banakoen eskubideak ken litzake

3° Arantzelak Ebrotik Bidasoraino igarotzeak ohiturazko komertzio askatasuna galaraz lezake. Estatura zerga sistema aldatuz foru zuzenbideak zerga berriak ekar lezake eta ekonomiari oztopo egin

4° Foruen abantailak. Foru erakundeek ekonomia bermatzen dute. Dagoeneko Espainiako euskal lurraldeen antolakuntzaz irabazlea da. Eta horien zaintzeak Napoleonen paktua azkartuko lukete eta Espainiako kolonien garapena lagundu.

Beraz eskatzen dute foruen gordetzea. Baionako juntaren idazkari nagusia Mariano Urquijo izan bazen, Bizkaitik Yandiola Baionan zegoen. Junta baino aldeago zen euskaldunei Napoleon eta erabaki gabe utzi zuen foruen arazoa.

**José Luis Orella Unzué** Deustu-Bilboko Unibertsitateko Zuzenbidearen historiako katedradun. *Manuel y Miguel de Lardizábal y Uribe y el Estatuto de Bayona.*

Biak Nueva Españako (Mexikoko) euskaldunen semeak ziren. Manuelen karrera ezagutzea on da Baionan izango duen eragina neurtzeko. Manuel Mexikoko unibertsitatean, Nueva Españan, irakasle da 1759. urtetik 1770era. Aurkeztu zen Jendeen eskubide katedrara Madrilén eta argitaratu *Elementa iuris naturae et gentium* Heineccioren (1776), baita *Historia del Derecho natural y de gentes* urte berean. Real Academia Española de la Lengua oso, eta bertako idazkari izendatu zuten; Real Chancillería de Granadako ministroa izan zen. Jovellanos eta Floridablancarekin harremanetan egonik *Discurso sobre las penas, contraído a las leyes criminales de España para facilitar su reforma* (1782) argitaratu zuen. Floridablanca eta Campomanesekin hezkuntzarako egitasmoa landu zuten eta umeen irakaskuntzarako abezedarioaren hobetzeko erreforma eskaini. Hamasei urtez itzalean egonik “ilustrado” delakoekin batean, 1808an Junta Suprema de Gobiernon hartu zuen Fernando VII.ak.

Haren anaia, Miguel de Lardizabal Uribe, unibertsitatean bide berdina jarraikiz, Espainiara itzuli eta goi funtzionario izan zen, eta azkenik Bergarako Mintegiaren Zuzendari. Miguel de Lardizabalek aieruz adierazi zion Fernando VII erregeari, bere burua errege izendatuari, ez zedin Baionara joan eta bera ez zen joan. Haren anaia Manuel bai, Baionan Gaztelako Aholkularitzaren izenean Indietako ordezkari izendatu baitzuten.

Maiatzaren 24ko izenpetzearen ondotik ekainean diputatu batzuk (91/150) baita ordezkariak bildu ziren Konstituzio Estatutu horren gauzatzeko, edo bideratzeko, behintzat. Bilera gehienetan egon zen Manuel, baina hirurogeita bost diputatuk baizik ez zuten sinatu. Halere Miguel José de Azanza hautatu zuten Indietako ministro. Jadanik urte hartako abuztuan Junta de Defensa batean sartu zen eta Manuelek, beste askorekin, Gaztelako Aholkularitzarekin batean sinatu zuen Karlos eta Fernando erregearen abdikapena ez zutela onartzen, halaber Konstituzioa baliogabetu zuten. Junta Central de Gobierno batekin, Regenciarako eta Cadizeko bileretarako antolatuan, Junta horretan bilduak ziren kontserbatzaileak eta liberalak. Floridablanca 1809an hiltzearekin lehertu zen batasuna. Cadizera ihesi eginik Junta Centralak Regencia Aholkularitza antolatu zuen, Cadizen bildu behar ziren Cortesen kudeatzeko orduan eta Consejo de Regencia horretan beste anaia Miguel sartu zen; Regenciakoak atxilotu zituzten eta Vincenneseko gazteluan giltzapetu, gero espainol erregeen berriz ezartzearekin hiru urtez Itsasoaren haraindiko Ministroa izan zen. Aldiz, Gaztelako Aholkularitza berpiztu zenean Manuel hartara Fernando VII. dekretuz izendatua sartu zen. Kadizko konstituzioa berriz indarrean jarri zenean eragileen artean zegoen Manuel.

**Txomin Peillen Karrikaburu**, Paueko eta Aturri herrietako unibertsitatean, irakasle emeritua eta euskaltzain osoa. *Napoléon Bonaparte au Pays Basque et les poètes basques.* (Napoleon, edo Bonaparteren politika euskaldun olerki eta betsoetan)

Bi hizkuntzetan garaiko euskarazko testu zaharrak itzuliz. Lau sailtako idazkiak badirela euskaraz, batzuk militarismoa goraiatzeko (Harispe mariskala, 1808. urteko eraiketak Madrilén); bigarrenik bertso herrikoiak, Napoleonek Frantziari egin kalteak; hirugarrenik, apezek egin olerki kultuak, hasieran Bonaparte goraiatzeko, iraultzaileak kanporatu eta eliza berriz eraikitzeko, baina Aita Santua errespetatu ez zuenean, gaizkiz. Olerki kultuen artean, baita ere, Gaskoiniako lapurtarren erbestez bertso zenbait; eta azkenik pastoralak bat historiari aski ongi jarraikiz Napoleonen bizitzako gorabeherak, eta “Baionako Gertakizunak” goraiamenik gabe, kontatzen dituenak.

**Albert Rigaudière**, Membre de l'Université de Paris II membre de l'Institut, professeur émérite d'histoire du droit. *Les origines médiévales du mot constitution.* (Konstituzio hitzaren Erdi Aroko jatorria)

Frantses Iraultzaren inguruko eta garai hartako ugaritasunagatik ikertzaile asko konstituzio horien ikertzen ibili dira. Frantses Erregeen eta Erdi Aroan nola adigai hori garatu

zen oso gutxi genekien. Berriki CNRSak, Zientzia Ikerketan Nazio Erakundeak, programa bat antolatu du eta Erdi Aroko azken hiru mendeen garrantzia Estatu adigaiaren sortzean agertu da.

Erdi Aroan foruak edo frantsesen “us et coutumes” delakoak ziren Estatuaren oinarriak, edo, beste gisaz esanda, oinarri banatuak. Foruak ziren konstituzio abioa eta erregeek maiz molde horretan sartu behar zuten.

Konstituzio hitza Erdi Aroan Erroman enperadoreak hartu erabaki eta arauengatik zeritzon. Hamahirugarren mendean hitz hori oraindik lausoa zen konstituzioa baita edozein agintariren erabaki bilduma. Hamalagarren mendean sail batzuetan erregeak hartu erabakia eta ordenantzak dira eta sailak, jendeen eskubideak, justizia, herrizaintza, finantzak eta zergak.

Denboraren joatearekin hitz horrek eremu horiek apur-apurka erregearen eskumeneko geldituko dira, hots gaur konstituzio deritzogunari egokitua. Halere, Frantzia baziren Biltzarrak zituzten edo Pays d’Etats delakoak (Britainia, Ipar Euskal Herria, Biarno) eta Lenguadokekoak 1380an erregeari eskatzen dio herriaren foru eta konstituzioak errespetatu ditzen.


**Arnaud Vergne**, professeur d’histoire du droit à l’Université de Versailles. *Les lois fondamentales dans le “Traité des droits de la Reine très chrétienne sur divers états de la monarchie espagnole (1667).*

Txostenaren izenburua 1667ko Antoine Bilain abokatuaren liburua da. Liburu hori Luis XIV.ak eskatu zion eta gero bizpahiru mendez liburu horren pentsaera alde edo aurka errege eta herritarren arteko harremanak eta erregeen ondozkatzea dela-eta erabiliko dena. Frantzia eta Espainiaren arteko errege harreman zailak, oinarrizko legeak, argudio bat bezala erabiltzen dira. Dena bideratzen da 1659 Pirineotako Bakearen ondoren. Felipe II.aren Maria Teresa alaba Luis XIV.arekin ezkontzen da, bi baldintzetan, bata 500.000 urte ezkutuko dotea ekarri; bestea, Espainiako tronuaren eskubideak uztea. Ez zen dotea ordaindu. Karlos II.a errege egin zenean Luis XIV.ak dotearen lekuan Nederlandia, Luxenburgo eta Franche-Comté

eskatu zituen, gerratean sartuz. Oinarrizko maximak edo legeak erregearen eskubideak erakusteko erabiltzen dira ezen herritarrekin erregeak dituen loturak lege horiek baitira eta tronuaren ondozkatzea baldintzatu lezaketelako.

Liburuak agertzen du erreinu batzuetan hala nola Polonian erregea hautatzen den. Frantzia berriz, Espainiako alderantziz, andre bat erregea izan daiteke (ley sálica). Isabel Katolikoa frantses ohitura horren alde zen, baina Aitonon Semeen Batzarrak ezezkoa eman zion. Hori dela-eta gogoratzen da probintzietan ezin litekeela forurik edo koderik alda, baina frantses absolutismoak bere ideiak agertzen ditu: “Erregeak agintzen du eta herriak obeditu behar du”.

Berehalaxe, Algernon Sidney ingeles lege gizonak gogoratu zuen garrantzitsuena zela “Erregeek beren herriko legeen aurka zorionezko ezintasuna dutela”. Halaber, Jean Barbeyrac Holandako lege gizonak, Antoine Bilainen liburua aipatzean, askatasunaren alde argudioak ditu gogoko. Frantses Entziklopedia Handia 1750. urtean argitaratu zenean lehen tomoan “aginte publikoaz” idatzi zuen: “Ez dago gizonik agintzeko eskubidea jaiotzez duenik”. Bederatzigarren tomoan, berriz, jainkoen eskubideez errege izatea ukatzen da. Beraz, oinarrizko legeetan sartzen dira, alde batetik erregeak herrietako eskubideak errespetatu behar dituztela, baita horregatik baizik erregea herriari lotua dela.



**Les origines du constitutionnalisme et la Constitution de Bayonne du 7 juillet 1808** / Maïté Lafourcade ed. – 369 p. : il. ; 24 cm. – En: RIEV Cuadernos, 4. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2009. – ISBN: 978-84-8419-179-7.